

**ADUNAKO UZTARTZA ATERPETXEA ETA JATETXE-TABERNA
KUDEATZEKO ETA USTIATZEKO EMAKIDA ADMINISTRATIBOA,
PROZEDURA IREKIARI JARRAITUZ ETA LEHIAKETA BIDEZ,
ESLEITZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA**

1.- KONTRATUAREN HELBURUA

Adunako Udalak, Herriko Plazan dagoen Uztartza izeneko aterpetxearen eta jatetxe-tabernaren jabe denak, aterpetxe horren eta instalazio berean kokatua dagoen jatetxe-tabernaren kudeaketa, administrazioa, mantentze-lana, zaintza eta ustiapena emakida administratibo bidez esleitzeko lehiaketa publikorako deialdia egiten du, prozedura irekiaz.

2.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratu honek izaera juridiko-administratiboa izango du ondorio guztietarako; beraz, formalizatzen den kontratuari arlo horretan indarrean dagoen legeria aplikatuko zaio; eta zehazki:

- a) Baldintza Administratiboen Agiri hau.
- b) Agiri honekin batera onartzen den Ezaugarri Teknikoen Agiria.
- c) 3/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua (SPKLTB) onartzen duena, eta kontratu administratiboetan aplikatu beharreko gainerako legeria; eta halakorik izan ezean, zuzenbide pribatuko arauak.
- d) 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriei buruzkoa, eta horrekin bat datorren legeria.
- e) 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, Toki Erakundeen Zerbitzu Erregelamendua onartzen duena.
- f) Aplikagarri zaion gainerako legeria.

Nolanahi ere, garbi utzi behar da honakoa:

- Litzazio hau bultzatu duen kontratua, kontratistaren arrisku eta zorian adostutzat hartuko da.
- Gorago aipatu diren agirik eta legeriak ez dute baldintzatuko, kontratazioaren helburu den zerbitzua hobetzeko xedez lehiakide esleipendunek bere eskaintzetan aurkez ditzaketen ideiak.

3.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratu honek 7 urteko iraupena izango du, formalizatzen den une beretik aurrera. Hala ere, bi aldeek hala adostuz gero, iraupen hori emakida-emaileak ezarritako epeez luzatu ahal izango da, 40 urteko muga gainditu gabe.

Dena den, kontratuaren iraupena bukatutzat eman aurretik, bi aldeetan edozeinek espresuki adierazi beharko du ez duela interesik kontratua luzatzeko, eta uko horren ondorioak hasi baino gutxienez sei (6) hilabete lehenago egingo du adierazpen hori.

4.- PRESTAZIOAREN HASIERA

Agiri honen helburu diren zerbitzuak ematen hasteko eguna, esleipen kontratuan zehaztutako data izango da.

5.- LIZITAZIOAREN PREZIOA

Adunako aterpetxea eta jatetxe-taberna ustiatu eta kudeatzeagatik ordaindu beharreko litzazioaren prezioa honakoa izango da: ZAZPIEHUN EURO HILEAN (700 € hilean); hau da, ZORTZI MILA ETA LAUREHUN EURO URTEAN (8.400 € urtean). Zenbateko horri dagokion BEZa erantsiko zaio.

Zenbateko horrek ez du izango urteko berrikuspenik.

Litzazioaren prezioa gutxienekoa da; beraz, lehiakideek kanon hori baino prezio altuagoak eskaini ahal izango dituzte. Litzazioaren prezio horretara iristen ez den eskaintza ekonomiko oro baztertu egingo da automatikoki.

Ustiapenaren prezioa, kontratuaren iraupen osoan Administrazioari ordaindu beharreko kanon gisa eskainiko du lehiakideak, eskaintza ekonomikoaren barruan.

6.- ORDAINTZEKO ERA

Esleipendunak jarduneko hilaren 1etik 15era bitarte ordainduko du eskaintako hileko prezioa, aurretiazko ordainketa izaerarekin, xede horretarako ezarriko den kontu-zenbakian.

Kuoten ordainketan hogeita hamar egunetik gora atzeratzeak, kontratua automatikoki iraungitzea ekarriko du berarekin.

7.- KANONA URTERO BERRIKUSTEA

Urteko kanonaren prezioa ez da berrikusiko.

8.- LEHIAKIDEAK

Udalarekin kontratatzeko aukera izango dute jarduteko gaitasun osoa duten, kontratatzeko debekurik ez duten (Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan aipatutako egoeraren batean ez dauden), eta beren kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala egiaztatzen duten edo, Lege honek hala agintzen duen kasuetan, behar bezala sailkatuak dauden pertsona fisiko edo juridiko espainiarrek zein atzerrikoek.

Enpresaburuek, halaber, kontratu honen xede den jarduera burutzeko eska dakiekeen enpresari edo profesional gaitasuna izan beharko dute, kasuak kasu.

9.- DOKUMENTAZIOA ETA PROPOSAMENAK

A.- Proposamenak aurkezteko era.

Interesdunek, lehiaketa honetan parte hartzeko, hiru gutun-azal itxi (A, B eta C gutun-azalak) aurkeztu beharko dituzte aurrerago zehaztuko dugun dokumentazioarekin. Eta bakoitzaren azalean lehiakidearen izena ipiniko dute honako inskripzio honekin: *“Adunako Uztartza aterpetxea eta jatetxe-taberna kudeatzeko eta ustiatzeko emakida administratiboa, prozedura irekiari jarraituz eta lehiaketa bidez, esleitzeko prozeduran parte hartzeko proposamena”*.

A gutun-azalean, dokumentazio administratiboari dagokionean, honako agiriak sartuko dira:

- a) Proposamena aurkezten duen pertsonaren NAren edo IFZaren kopia.
- b) Lizitatuzailea pertsona juridikoa denean, Sozietatearen Eraketa Eskritura.
- c) Sektore Publikoaren Kontratu Legearen Testu Bateratuko 60. artikuluan aurreikusita dauden debekuetako bat beraren menpe ez egotearen erantzukizunpeko adierazpena.
- d) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan izena emanda egotearen egiaztagiria; horren ordez, proposatzailearen erantzukizunpeko adierazpena ere onartuko da.
- e) Lizitatuzailearen edo jatetxe-tabernan lanean jardungo duen langilearen Elikagaiak Manipulatzeko Baimenaren kopia. Kontratua esleipena egin eta gero formalizatzen bada, gerora elikagaiak zuzenean manipulatu dituzten pertsonen buruzko dokumentazio hori bera aurkeztu beharko da, zerbitzua ematen hasi aurretik.
- f) Lizitatuzaileek, nahitaez, Erantzukizun Zibileko Aseguru bat izan beharko dute jarduerak sor ditzakeen kalteak estaltzeko. Aseguru horrek, kudeatuko den lokalaren edukia ez ezik, lokalaren edukitzailea ere estali egin behar du, gutxienez 610.000 euroko estaldura-balioa ezbehar bakoitzeko, eta gutxienez 610.000 euro urtean; bestela, lizitazio honetan esleipendun gertatuz gero, poliza hori kontratatzeke konpromisoa hartuko dute bere gain. Nolanahi ere, esleipendunak aseguru hori kontratatu eta bere kargura mantenduko du, kontratazioaren iraunaldi osoan eta bermealdian. Hala egokituz gero, aseguruaren estaldura egin daitezkeen jarduera osagarrietara zabaltzeko konpromisoa hartuko du idatziz.
- g) Lizitatuzailearen kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzen duen txostena, finantza-erakundeak egina.

B gutun-azalean, irizpide subjektiboei dagokienean, kontratua esleitzeko oinarritzat hartuko diren irizpide subjektiboak baloratu ahal izateko beharrezkoak diren alderdien egiaztagiriak sartuko dira; zehazki:

- a) Egingo diren jarduera eta zerbitzu posibleen proiektu orokorraren Memoria, aterpetxe eta jatetxe-tabernaren publizitatea nola egin daitekeen sartuta, kultur dinamizazioa nahiz turismo aktiboa sustatzeko proiektua.
- b) Aterpetxe eta jatetxe-tabernaren zerbitzua antolatzeko sistemaren memoria: egonaldien erreserbak (erabil daitezkeen sistemak eta funtzionamendua, erantzuna emateko epea ere sartuta), bezeroarekiko arreta, ostatu hartuta dauden pertsonen sarreren kontrola, ostatu-ematea, mantenua, garbiketa eta mantentze-lanak eta baldintza-agirietan aurreikusitako ordutegien hobekuntza: Irekitzeko eta ixteko ordutegia, asteko atsedeen-eguna, sukaldea zein egunetan itxiko den, eta abar.

Zehaztu egin beharko dira:

- Zerbitzu bakoitzaren funtzionamendua.
 - Bitarteko materialen erabilera, ingurumen irizpideak ere sartuta.
- c) Instalazioko lanak eta kudeaketa egiteko lizitatzailleak dituen edo izango dituen giza baliabideak eta bitarteko teknikoak deskribatzen dituen memoria. Giza baliabideak eta bitarteko teknikoak zehaztasunez azalduko dira, lizitatzailleak ostatuaren alorrean eta ostalaritzan duen esperientzia aipatuz, eta hori agirien bitartez egiaztatuz.

Zehaztu egin beharko dira:

- Giza baliabideak: enplegatuko diren pertsonen datuak, sektore honetan duten esperientzia azaltzen duten curriculumak erantsita.

C gutun-azalean, irizpide objektiboei dagokienean, honakoa sartuko da:

- a) Proposamen ekonomikoa, behar bezala betea, honako eredu honi jarraituz:

PROPOSAMEN EREDUA

..... jaunak/andreak (IFZ:), helbidea
.....n dudan honek, neure izenean (edota
helbidea.....ko kalean duen, (telefonoa: eta IFZ:
.....)ren ordezkapenean).

AITORTZEN DUT

- Adunako Uztartza aterpetxea eta jatetxe-taberna kudeatzeko eta ustiatzeko emakida administratiboa kontratatzeko xedez abiarazi den prozeduraren berri izan dudala.
- Era berean, ezagutzen ditudala Adunako Uztartza aterpetxea eta jatetxe-taberna kudeatzeko eta ustiatzeko emakida administratiboaren kontratazioa arautuko duten Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agiria eta Ezaugarri Teknikoen Agiria.
- Betetzen ditudala indarrean dagoen araudiak eta arestian aipatutako Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agiriak eskatzen dituzten betekizun eta obligazio guztiak.
- Adunako Uztartza aterpetxea eta jatetxe-taberna kudeatzeko eta ustiatzeko emakida administratiboaren trukean urtean euro (letraz eta zenbakiz) ordaintzeko konpromisoa hartzen dudala nire gain; hau da, euro (letraz eta zenbakiz) emakidak iraungo duen 7 urteko epean.

(Lekua, data eta proposatzailearen sinadura)

B.- Proposamenen kopurua eta edukia mugatzea.

Lizitatzailerako bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du.

Proposamenetan, Agiri honetan ezarritako baldintzak ezin izango dira ezeztatuz, ezta aldatu ere, baldintza horiek hobetzeko ez bada behintzat.

Kontzeptu guztiak eskainitako prezioan sartuzat joko dira, bai kontratistaren irabazi industrialak eta baita zerga, gastu, eta arlo fiskaleko tasa eta gainerako guztiak ere, BEZa izan ezik.

A, B eta C gutun-azalean sartutako dokumentazioaren benetakotasuna egiaztatuz ahal izango du Administrazioak, bai esleipena egin aurretik eta ondoren, eta bai kontratuak dirauen bitartean. Enpresak aurkeztutako datu eta inguruabarretan antzeman daitezkeen faltsutasun oro kontratua indargabetzeko arrazoia izan daiteke, kontratistari lepora dakiokkeen ez-betetzea gertatu delako. Halakorik gertatuz gero, kontratistak galdu egingo du jarri duen behin betiko bermea edo bestela, hala egokituz gero, berme horren kalte-ordain baliokidea exijituko zaio, baldin eta bermea eratu ez badu.

C.- Proposamenak aurkezteko epea.

Proposamenak aurkezteko epea hogeita sei (26) egun naturalekoa izango da, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) eta Adunako Udaleko kontratatzailearen profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, 9:00 – 14:00 bitartean. Azkeneko eguna larunbata edo jaieguna izango balitz, epea hurrengo egun balioduneko ordu berera luzatuko litzateke. Eskerak Adunako sarrera erregistroan aurkeztuko dira (Herriko plaza, 1 Aduna).

D.- Prozeduraren publizitatea.

Kontratuaren gardentasuna bermatzearen eta jendeak kontratu arloko jarduerari buruzko informazioa lor dezan, Adunako Udalak badu kontratatzailearen profila bere webgunean (www.aduna.eus).

10.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA.

SPKLTBaren 103. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta kasu honetan beharrezkoa ez denez, behin-behineko bermerik ez da eskatuko kontratu honen lizitazio prozeduran parte hartzeko.

11.- BEHIN BETIKO BERMEA

SPKLTBaren 95.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratuaren izaera eta kontratuaren xede diren ondasunen balioa aintzat hartuta, eskaintza ekonomikoki onuragarriena aurkezten duen lehiakideak, behin betiko bermea jarri izana egiaztatu beharko du; hau da, esleipen prezioaren eguneko hamar (% 10). Esleipen hori 7 urterako egingo da.

Esleipendunak baldintza hori ez badu betetzen, berari lepora dakizkiokeen arrazoiak tarteko, eskaintza baztertu egin duela ulertuko da; halakorik gertatuz gero, eskaintzen sailkapenean hurren geratu den lizitatzailari eskatuko zaio kontratua zertzeko beharrezkoa den dokumentazioa.

Esleipendunari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak jarritako bermearen gainean gauzatzen badira, esleipendunak berme hori osatu edota zabaldu egin beharko du, dagokion zenbatekoan, bermea erabili den egunetik hasi eta hamabost eguneko epean. Bestela, kontratua indargabetzeko bidea emango du.

Baldin eta kontratua aldatzen bada, eta horren ondorioz kontratuaren prezioan gorabeheraren bat gertatzen bada, bermea doitu egin beharko da, aldatutako prezio berriaren proportzioan gera dadin. Doikuntza hori hamabost eguneko epean egin beharko da, kontratua aldatzeko erabakia enpresariari jakinarazten zaion egunetik hasita.

Behin betiko bermean, nolahi ere, SPKLTBaren 100. artikuluan aipatutako kontzeptuak sartuko dira. Nabarmendu behar da, jarritako bermea ez bada nahikoa aipatutako erantzukizunei aurre egiteko, Adunako Udalak emakidadunaren ondarearen gainean egikarituko duela diferentzia horren kobrantza.

SPKLTBaren 96. artikuluan aurreikusitako edozein eratan jarri ahal izango da behin betiko bermea, eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak (HAKLEO) 55, 56 eta 57. artikuluetan xedatutakoari lotuko zaio.

Bermea, edozein kasutan ere, HAKLEOn adierazitako erduei jarraituz eratuko da.

HAKLEOren 155.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, esleipendunak 10 egun balioduneko epea izango du behin betiko bermea eratzeko, zerga alorreko eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan egunean dagoela egiaztatzen duten agiriak aurkezteko eskaera jasotzen duen egunaren biharamunetik aurrera.

12.- BEHIN BETIKO BERMEA ITZULTZEA ETA KITATZEA

Behin betiko berme hori bermealdia amaitzean edo kitatzean itzuliko zaio esleipendunari, kasuan kasuko kontratua behar bezala bete duela egiaztatu ondoren; edo bestela, kontratua desegintzat ematen denean, kontratistari lepora dakiokkeen errurik gabe. Hori guztia, SPKLTBaren 102. artikuluekin bat eta HAKLEOren 65.2 eta 3 artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da.

13. DOKUMENTUAK KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

a) Dokumentuak kalifikatzea eta zuzen daitezkeen akatsak eta omisioak.

Kontratazio Mahaiak, proposamenak aurkezteko epea bukatzean, jendaurrekoa izango ez den lehen egintza bat burutuko du; eta horretan, SPKLTBaren 146. artikuluan aipatutako dokumentazio administratiboa jasotzen duten A) gutun-azalak irekiko ditu.

Baldin eta Mahaiak akatsak edo omisioak antzematen baditu aurkeztutako dokumentazioan, fax bidez edo posta elektronikoz jakinaraziko die interesdunei, eta gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango die oker horiek zuzentzeko edo konpontzeko.

Mahaiak, halaber, aurkeztutako ziurtagiriak eta dokumentuak argitzeko edo dokumentu osagarriak aurkezteko eskatu ahal izango die lizitatzailerei. Hauek bost egun natural izango dituzte errekerimendu hori betetzeko, eta ezin izango dituzte aurkeztu HAKLEOren 83.6 artikuluan xedatutakoaren arabera eskaintzak onartutzat eman ondoren.

Aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu eta, halakorik bada, antzemandako akatsak edo omisioak zuzendu ostean, hautaketa-irizpideak betetzen dituzten enpresak izendatuko ditu Mahaiak. Hain zuzen ere, lizitazioan onartutako eta baztertutako enpresak berariaz izendatuko ditu, azken hauek baztertze arrazoiak adieraziz.

b) Jendurreko egintza, automatikoki ezin baloratu diren irizpideei lotutako B) gutun-azalak irekitzeko:

Mahaiak, jendurreko egintzan –Adunako Udalaren webgunean (www.aduna.eus) iragarriko da berau–, lizitatzailleek A) gutun-azalean aurkeztutako dokumentuek lortutako kalifikazioaren berri emango du. Hain zuzen ere, lizitazioan onartutako eta baztertutako enpresak berariaz izendatuko ditu, azken hauek baztertzeko arrazoiak adieraziz.

Segidan, onartutako lizitatzailleek aurkeztu dituzten eta automatikoki baloratu ezin diren irizpideei dagozkien B) gutun-azalak irekiko ditu, eta horietan jasotako dokumentazioa, formulen bitartez baloratu ezin diren irizpideekin aztertzeko utziko ditu.

Era berean, bere proposamenak egin aurretik, lizitatzailleek aurkeztutako proposamenak baloratzeko bidezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu.

c) Jendurreko egintza, automatikoki balora daitezkeen irizpideei dagozkien C) gutun-azalak irekitzeko eta eskaintza ekonomikoak irakurtzeko:

Kontratazio Mahaiak, automatikoki baloratu ezin diren irizpideen balorazio-txostena jaso ondoren, jendurreko egintzan –Adunako Udalaren webgunean (www.aduna.eus) iragarriko da berau–, automatikoki baloratu ezin diren irizpideen azterketan ateratako emaitzaren berri emango du.

Ondoren, onartu diren proposamenetan automatikoki balora daitezkeen irizpideei dagozkien C) gutun-azalak ireki, eta eskaintza ekonomikoak irakurriko ditu.

Modu automatikoan kuantifika daitezkeen irizpideen balorazioa, edonola ere, balio-judizio baten arabera kuantifikazioa izango duten balorazioaren ondotik egingo da.

Mahaiak, azkenik, esleipena egin behar duen kontratazio organoari bidaliko dizkio proposamenak, aktarekin eta esleipen proposamenarekin batera.

Esleipen proposamena dela-eta, proposatutako lizitatzailleak ez du inolako eskubiderik izango Adunako Udalaren aurrean. Hala eta guztiz ere, kontratazio organoak erabakitzen badu kontratua esleipen-proposamen horren arabera ez esleitzea, erabaki hori arrazoitu egin beharko du.

Proposamenak ez dira onartuko, baldin eta:

- Kontraesanak, omisioak, akatsak edo zirriborroak badituzte eta, hauek, Administrazioaren iritziz eskaintza kontuan hartzeko funtsezkoa dena garbi jakitea eragozten badute.
- Ez badatoz bat aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin.
- Baldintza-agirian ezarritako prezioa baino gutxiago eskaintzen badute.
- Ezarritako proposamen eredian funtsezko aldaketak egin badituzte.

14.- ERREKERIMENDUA, ESLEIPENA ETA KONTRATUA FORMALIZATZEA

Aipatutako izapideak eta eskakizunak bete ostean, espedientea Adunako Udalbatzara bidaliko da eta honek, eskaintza ekonomikoki onuragarriena aurkeztu duen lehiakideari errekerimendua egingo dio, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik hasita hamar egun balioduneko epean honakoa aurkez dezan:

- Kontratu gauzatzeko erabiltzera edo atxikitzera konprometitutako bitarteko material eta giza baliabide guztiak benetan badituela egiaztatzen duen dokumentazioa, SPKLTBaren 64.2 artikulua araberara.
- Erantzukizun Zibileko aseguru-polizaren kopia, baldin eta asegurua kontratatze konpromisoa besterik aurkeztu ez badu. Horrekin batera, kasuan kasuko ordainagiriaren kopia aurkeztuko du.
- Eta dagokion behin betiko bermea jarri izanaren egiaztagiria.
- Zerga betekizunak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak. Horretarako, erakunde eskudunek egindako ziurtagiriak aurkeztuko ditu edo bestela, proposamena aurkeztu duenaren erantzukizunpeko adierazpena.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan izen-emateko inprimakia aurkeztu izanaren justifikazioa, hala egokituz gero.

Emandako epean esleipendunak errekerimendua ez badu behar bezala betetzen, eskaintza baztertu egin duela ulertuko da; halakorik gertatuz gero,

dokumentazio bera eskaintzen sailkapenean hurren geratu den lizitatzaileri eskatuko zaio.

Kontratazio organoak hurren egingo den Udalbatza osoaren bilkuran esleitu beharko du kontratua; eta bilkura hori, ahal bada behintzat, gorago aipatutako dokumentazioa jaso ondorengo bost egun balioduneko epean egingo da.

Lizitazioa ezin izango da hutsik geratu, baldin eta baldintza-agirian aipatutako irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat aurkeztu bada.

SPKLTBaren 155.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, esleipendunak kontratua egiteari uko egiten badiu, edo prozedura honetan atzera egiten badu, lizitazio honek lizitatzaileri eragin dizkien gastuen konpentsazioa Administrazioak erabakiko du, interesdunei entzun eta gastuak justifikatu ondoren.

Esleipena lizitatzaileri jakinarazi beharko zaie eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratu.

Jakinarazpenean behar besteko informazioa eman beharko da, kanpoan utzitako lizitatzailak aukera izan dezan esleipen-erabakiaren aurka arrazoitutako errekurtsoa jartzeko.

Bereziki, honakoak adieraziko dira:

- a) Baztertutako lizitatzailen eskaintzak ez onartzeko izan diren arrazoiak.
- b) Esleipendunaren izena, ezaugarriak eta egin duen proposamenaren abantailak; hain zuzen ere, eskaintzak onartu zaizkien gainerako lizitatzailak aurkeztutako eskaintzekin alderatuta, haren eskaintza hobesteko erabakigarriak izan diren abantailak.

Esleipena arrazoitzeko garaian, SPKLTBaren 153. artikuluan aipatutako konfidentzialtasun salbuespena aplikatu ahal izango da.

Nolanahi ere, kontratua noiz formalizatu behar den adieraziko da, bai jakinarazpenean eta bai kontratatzailearen profilean.

Jakinarazpena egiteko, hartzaileak jaso izana garbi uztea ahalbidetzen duen edozein bitarteko erabiliko da. Bereziki, jakinarazpena posta elektronikoz egin ahal izango da, lizitatzailak edo hautagaiek beren proposamenetan

adierazitako helbidean, herritarrek Zerbitzu Publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzko 11/2007 Legeak, ekainaren 22koak, 28. artikuluan ezarritako baldintzetan.

Kontratua formalizatzen denean emango da amaitutzat. Hori agiri administratibo batean egingo da, lizitazioaren baldintzak zehatz-mehatz jasota, eta agiri hori titulu nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko.

Kontratua dokumentu administratibo batean formalizatuko da, eta horretarako, gehienez ere hamabost egun balioduneko epea izango da, lizitatuzaileei jakinarazpena egiten zaien egunetik hasita. SPKLTBaren 156. artikuluan xedatutakoaren arabera, agiri hori titulu nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko.

Kontratua ez bada formalizatu kontratistari egoztekoak diren arrazoiengatik, Administrazioak kontratua indargabetutzat jotzea erabaki dezake, aldez aurretik interesdunari entzunda, kontratistari honek eragindako kalte eta galeren kalte-ordaina eskatuz.

Kontratua ezin izango da gauzatzen hasi, aldez aurretik formalizatu ez bada.

17.- KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia honako hauek osatuko dute:

Mahaiburua: Udalbatzako bera edo honek bere ordeztzen duena.

Mahaikideak: Udalbatzako hiru zinegotzi eta Udalbatzako idazkaria.

Idazkaria: Udalbatzako administraria.

18.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Esleitzeko prozedura lehiaketa bidez egingo denez, agiri honetan jasotako irizpide guztiak baloratzerakoan aintzat hartuko dira honako irizpide, formula edo kalkulatzeko era hauek:

Modu automatikoan ezin baloratu diren irizpideak: 48 puntu

- a) Egingo diren jarduera eta zerbitzu posibleen proiektu orokorraren Memoria, aterpetxe eta jatetxe-tabernaren publizitatea nola egin daitekeen sartuta, eta kultur dinamizazioa nahiz turismo aktiboa sustatzeko proiektua.

Gehienez 25 puntu emango dira.

- b.1) Aterpetxe eta jatetxe-tabernaren zerbitzua antolatzeko sistema: egonaldien erreserbak (erabil daitezkeen sistemak eta funtzionamendua, erantzuna emateko epea ere sartuta), bezeroarekiko arreta, sarreren kontrola, ostatu-ematea, mantenua, garbiketa eta mantentze-lanak. Instalazioko lanak eta kudeaketa egiteko lizitatzailerak dituen giza baliabideak eta bitarteko teknikoak deskribatzen dituen memoria, giza baliabideak eta bitarteko teknikoak zehaztasunez azalduz.

Gehienez 10 puntu emango dira.

- b.2) Baldintza-agirietan aurreikusitako ordutegiak hobetzea: Irekitzeko eta ixteko ordutegia, asteko atseden-eguna, sukaldea zein egunetan itxiko den, eta abar.

Gehienez 13 puntu emango dira.

Modu automatikoan baloratu daitezkeen irizpideak: 52 puntu

Lizitazio prezioa

Gehienez 52 puntu emango dira.

Prezioa baloratzeko, puntuazioa honela kalkulatu da:

Gehitzen den % 5 bakoitzeko puntu bat gehiago lortuko da	52 puntu gehienez
Lizitazioaren oinarritzko prezioa % 40 eta % 50 bitarte igotzea	40 puntu
Lizitazioaren oinarritzko prezioa % 30 eta % 39,99 bitarte igotzea	35 puntu
Lizitazioaren oinarritzko prezioa % 20 eta % 29,99 bitarte igotzea	30 puntu
Lizitazioaren oinarritzko prezioa % 10 eta % 19,99 bitarte igotzea	25 puntu
Lizitazioaren oinarritzko prezioa % 1 eta % 9,99 bitarte igotzea	20 puntu

Berdinketa erabakitzea:

Behin betiko puntuazioan berdinketa gertatzen bada, esleipena honela erabakiko da:

- 1- Eskaintza ekonomiko hoberena
- 2- Ordutegi zabalena

Enpresa esleipendunak bere betekizunei erantzuteko behar diren langileak kontratatuko ditu. Langile horiek soil-soilik esleipendunaren mende egongo dira; izan ere honek bete egin beharko baititu lan arloan, Gizarte Segurantzaren, laneko segurtasun eta higiene gaietan eta laneko arriskuen prebentzioan indarrean dauden legezko xedapen guztiak. Beraz, aipatutako xedapenak ez betetzearen erantzukizunetik libre utziko du Administrazioa.

Enpresa esleipendunaren langileek ez dute inolako loturarik izango Adunako Udalarekin, lan, kontratu edo funtzionario esparruko harremanez, ez kontratuak dirauen bitartean eta ez kontratua amaitutakoan.

21.- EMAKIDADUNAREN BERARIAZKO BETEKIZUNAK

Indarrean dagoen legerian (Toki Korporazioen Zerbitzu Erregelamenduko 127.1. artikuluan) ezarritako betekizun orokorrez gain, eta Ezaugarri Teknikoen Agirian jasotako zehaztapenez gain, esleipendunak bete egin beharko ditu berariazko betekizun hauek:

1) Emakidaduna, aterpetxea eta jatetxe-taberna ustiatzera behartuta dago; jendearentzako zabalik eta leku horrek berezkoak dituen zerbitzuak emateko moduan edukiko ditu, hau da, ostaldea eskaintzeko eta otorduak, edariak, otartekoak eta abar zerbitzatzeko moduan. Eta beti, agiri honetan eta ezaugarri teknikoaren baldintza-agirian xedatutako eran emango du zerbitzua.

2) Aterpetxea urteko egun guztietan zabalik egongo da, arauzko oporraldian izan ezik; egun horiek, Udalarekin bat etorriz erabakiko dira –15 egun gehienez–, baina Adunako urteko jaietan ezin izango dira hartu, inolaz ere.

3) Jatetxe-taberna jendearentzako zabalik egongo da gutxienez 09:00–24:00 ordutegian, astelehenean ostiralera, eta 11:00–24:00 bitartean asteburu eta jaiegunetan. Dena den, ordutegi hori zabalagoa ere izan daiteke kontratu honen esleipendunak halakorik eskaintzen badu.

4) Jendeari asteko egun guztietan zabalduko zaio jatetxea, bazkaria eta afaria eskainiz.

Hori horrela, jatetxeko zerbitzua gutxienez egutegi honen arabera eskainiko zaio jendeari:

- Bazkaria: Egunero.

- Afaria:

+Ekainetik irailera egunero, astelehenetan izan ezik.

+Urritik maiatzera egunero, astelehen, astearte eta asteazkenetan izan ezik.

+ Afaria jaiegun eta jaiegun-bezpera guztietan emango da.

5) Aterpetxea ezin izango da itxi asteko atsedenaldiaren aitzakiaz. Jatetxe-tabernaren asteko atsedenaldia astelehenean egingo da, 17:00etatik aurrera.

Baloratu egingo da jatetxe-taberna astelehen arratsalde-gauean zabaltzea.

6) Emakidadunak egunero gosaria, bazkaria eta afaria eskaini beharko die, derrigorrez, aterpetxean ostatua hartuta dauden pertsoneri.

7) Emakidadunak instalazio guztien garbitasunaz arduratu beharko du; hori horrela, instalazio horiek higiene-egoera akasgabea erakutsiko dute uneoro.

8) Emakidari ekiten zaion une beretik aurrera funtsezko elikagaiak salgai eduki beharko dira (esnea, arrautzak, ogia...).

9) Emakidadunak zuzenean eta pertsonalki beteko ditu emakida honi dagozkion berezko eginkizunak, nahiz eta bere eginkizunean laguntzaileak edo enplegatuak eduki ditzakeen, baina horiek ez dute horregatik Adunako Udalarekin inolako menpekotasun edo lan harremanik izateko eskubiderik bereganatuko.

Kasu horretan, emakidadunak laguntza hori ohikoan emango duten pertsonen izenak jakinarazi beharko dizkio Adunako Udalari.

10) Emakidadunari dagokio, emakidak irauten duen bitartean, bai aterpetxeko eta bai jatetxe-tabernako instalazioetako ondasun higikorrek bere kontura aldatzeko edo konpontzeko ardura. Era berean, instalazioen funtzionamendu normalak eskatzen dituen ur, argi, estolderia, gas, igogailu eta gainontzeko gastuen zenbatekoak ere berak ordaindu beharko ditu.

11) Halaber, emakidadunari dagozkio eraikinaren barruko mantentze-lanak ere (pintura eta abar); Udalak ikusten badu instalazioak egoera kaskarrean daudela, bidezko konponketak edo artapen lanak egiteko agin diezaioke; izan ere, emakida amaitzean, instalazio guztiek egoera onean geratu behar baitute bai zoruari dagokionez baita eraikinaren barruko hormei eta abarri dagokienez ere.

12) Emakidak irauten duen bitartean, esleipendunak zerbitzu on eta egokia eskaini beharko du, eta horri buruz Adunako Udalak zehazten dituen arauak bete beharko ditu, establezimendu publikoetarako ematen diren osasun arloko arau edo xedapen guztiak bezalaxe.

13) Jendea zuzenean artatzen duten langileek (barrako langileak, zerbitzariak, eta abar), bi hizkuntza ofizialetan (euskeraz eta gaztelaniaz) normaltasunez hitz egiteko gai izan behar dute.

14) Lanean ari diren guztiak txukun eta egoki jantzita egongo dira, eta Adunako Udalak gai horri buruz ematen dizkien jarraibide guztiei men egin beharko diete, jendearenganako abegi ona erakutsiz.

15) Emakidadunak ezin izango dio emakida beste inori eskualdatu Udalbatzaren baimenik gabe.

16) Era berean, ezin izango du inolako kartel, letrero edo publizitate iragarkirik ezarri, ezta inolako obrarik egin ere, Adunako Udalak espresuki horretarako baimena ematen ez badio behintzat.

17) Esleipendunak bere gain hartu beharko du jarduera burutzearen ondorioz pertsoneri edo ondasunei eragin liezaiekeen kalte ororen ondare-erantzukizuna, kalte horiek emakidadunari edo honen mendeko langileei egoztekoak badira behintzat.

Hori horrela, esleipendunak erantzukizun zibileko aseguruia kontratatatu beharko du, erabiltzaileek instalazioen barruan jasan ditzaketen istripu guztiak estalita egon daitezen.

18) Esleipendunarengan eragin ditzaketen zerga-betekizunak esleipendunak ordaindu beharko ditu, aurreikuspen edota gizarte segurantzakoak bezalaxe.

19) Era berean, taberna irekia dagoen bitartean, esleipendunari dagokio udal pilotalekuko argi-fitxak banatzeko eta aldagelen erabilpen-txandak ezartzeko ardura, baita horiek irekitzea eta ixtea ere, Udalak gai honen inguruan ezartzen dituen arauak betez betiere.

20) Esleipendunari dagokio aterpetxean ostatua hartuta dauden pertsonen erabiltzen dituzten udal lokalen erabilera kontrolatzea, baldin eta erabilera hori Adunako Udalak baimendua bada. Horrela bada, giltzen ardura bere gain hartuko du eta, era berean, udal lokalak irekitzeaz eta ixteaz arduratuko da, erabiltzaileei eragin dituzten kalteen ordaina eskatuz, bera izango baita bezeroen erabilera okerraren erantzulea.

21) Emakidadunak Adunako Udalarentzako ostatu-lekuak gorde beharko ditu aterpetxean, Udalak aurrez hala eskatzen dionean.

22) Emakidadunak eskura izango dituen instalazioen barruan sartzen da beroriei atxikita dauden terrazak ere; horiek, janari-edariak zerbitzatzeko mahaiak eta aulkiak ezartzeko erabili ahal izango da nahiz eta Adunako Udalak, bidezkoztat jotzen dituen jardueretarako gorde ahal izango duen, aurrez emakidadunari horren berri emanda.

Edozein kasutan ere, emakidaduna arduratuko da terraza horien garbiketaz.

23) Debekatua dago instalazioetan animaliak edukitzea.

24) Udalak eskatzean, eta urtean behin gutxienez, enpresaren dokumentazioa eman beharko dio, lan gaietan, zerga alorrean, administrazio gaietan eta abarretan erabat legez dagoela egiaztatu ahal izateko.

25) Erreklamazioen liburua bezeroen eskura edukiko du.

26) Ezinbesteko egoeraren bat gertatuz gero, egoera horrek dirauen bitartean Adunako Udalaren zuzendaritza onartuko du, kontratatuak dauden zereginez aparteko lanak egiteko, baldin eta normaltasunera itzultzeko halakorik behar bada.

27) Emakidaren helburu diren instalazioetan erabiltzen diren zerbitzuak eta hornidurak (ura, argia, zaborrak, estolderia, elikagaiak, tresneria, makineria lagungarria, ...) kontratatu eta ordaindu egingo ditu kontratuaren iraunaldian, baldin eta zerbitzu horiek banaka kontratatzeke modukoak badira eta baldintza-agiri honen arabera, espresuki Adunako Udalaren konturakoak ez badira.

22.- UDALAREN BETEKIZUNAK.

Indarrean dagoen legerian, agiri honetan eta Ezaugarri Teknikoen Agirian jasotako betekizun orokorrez gain, eta SPKLTBaren 145. artikuluan emakidadunari aitortzen zaizkion eskubideez gain, Udalaren betekizunak izango dira:

- 1.- Emakidaren helburu diren lokalak esleipendunaren eskura jartzea.
- 2.- Zerbitzua normaltasunez emateko beharrezkoa den Babesa esleipendunaren eskura jartzea, Udalak dituen baliabideen arabera, betiere.
- 3.- Establezimendua (edukitzailea) aseguratzea.

4.- Kontratuaren lehendabiziko bi urteetan, Udala arduratuko da berriro jarri beharrekoak jartzeaz –ontziak, sukaldeko tresnak, argiak, lanabesak eta antzekoak izan ezik– baina gerta litezkeen konponketak sartu gabe.

23.- ZERBITZUA IKUSKATZEA

Esleipendunak, lehiaketa honetan parte hartzearekin, eta baldintza-agiri hau espresuki eta formalki onartzearekin, lokalaren barrura sartzeko baimen osoa eta formala ematen dio Adunako Udalari, bai instalazioen egoera ona eta funtzionamendu egokia ikuskatzeko, eta bai baldintza-agiri honetan jasotako xedapenak betetzen direla ikusteko. Horrela, zerbitzuak behar bezala funtzionatzen duela bermatu ahal izango du, uneoro, Adunako Udalak.

24. KONTROLA

Adunako Udalak, Alkateak kasu bakoitzerako izendatzen duen pertsonaren bitartez, zaintza eta kontrol lana egin dezake aterpetxearen eta jatetxe-tabernaren funtzionamenduaz, haien barruko antolaketaz, irekitzeko eta ixteko ordutegiaz, eta aterpetxea osatzen duten lokal guztien garbitasun egoeraz. Hori horrela, gune eta instalazio guztietara noiznahi sartzeko eskubidea izango du Adunako Udalak.

Nolabaiteko gabeziarik antzeman ez gero, dagokion akta egingo da; lehenengo aldian idatzizko ohartarazpena ekarriko du horrek; eta bigarren aldian, berriz, dagokion zigor espedientea irekiko da, bidezko isunak ezartzeko eta, hala egokituz gero, kontratua deuseztatzeko.

Adunako Udalak, kautelazko neurri gisa, zerbitzua eteteko erabakia har dezake zigor espedientearen hasieran.

Bidezkoa hala izan arren esleipendunak lokala utziko ez balu, etor litekeen zigor erantzukizunaz gain, Adunako Udalak bere edozein organoren bitartez, lokala uztera bultzatuko duten bortxazko eta premiamenduzko neurriak erabili ahal izango ditu.

25.- ARAU-HAUSTEAK

SPKLTBaren 252. artikuluan xedatutakoaren arabera, esleipendunak egin ditzakeen ez-betetzeak arau-hauste arinak edo larriak izan daitezke.

1.- Arau-hauste arinak:

- a. Kontraturiko langileekiko eta zerbitzuari atxikitako langileekiko esleipendunak dituen gizarte eta lan arloko betebeharrak ez betetzea.
- b. Zerbitzuak ematerakoan, behin eta berriz eta sistematikoki atzeratzea.
- c. Zerbitzua guztiz edo hein batean behar bezain ondo ez ematea, horren ondorioz kudeaketa arriskuan jartzen ez bada eta erabiltzaileak kaltetzen ez badira.
- d. Esleipendunaren langileek exiji dakiekeen uniformetasuna ez izatea, edota janzkeran txukuntasun eta begirunerik ez erakustea.
- e. Zerbitzuko langileek erabiltzaileekin portaera desegokia izatea.
- f. Adunako Udalak zerbitzuen prestazioan antzemandako gabeziei buruz behin eta berriro idatziz egindako ohartarazpenei jaramonik ez egitea, nahiz eta ez-betetze horiek zigor espediente irekitzeko biderik ez eman, eta urtebetean, kontzeptu berarengatik, esleipendunak bi ohartarazpen jaso izana.
- g. Urtebetean izaera bereko bi arau-hauste arinengatik zigortua izatea.
- h. Zerbitzuari lotutako ondasunak behar besteko arduraz ez zaintzea.

- i. Emakidan hartutako ondasunak garbi ez edukitzea edo hondatzea.
- j. Hirugarrenen ondasunei kalteak eragitea, esleipendunaren erruz edo zerbitzua arduragabekeriaz emateagatik; horrek, gainera, ez du baldintzatuko kaltetuek ondare-erantzukizuna exijitzea.
- k. Osasun arloko xedapenak ez betetzea, egoera osasungaitzen, arriskutsuen edo deserosoen prebentzioari buruz emandako aginduak ez betetzeagatik.

2.- Arau-hauste larriak:

- a) Zerbitzua ematerakoan gerta litezkeen gabeziak, egitez edo ez-egitez, baldin eta horren ondorioz esleitutako zerbitzu guztien edo batzuen kudeaketa arriskuan jartzen bada, Adunako Udalak gai horren inguruan egindako ohartarazpenei jaramonik egin gabe.
- b) Zerbitzua ematen ez hastea baldintza-agiri honetan ezarritako epeetan.
- c) Zerbitzuaren prestazioa erabat edo hein batean beste norbaiti lagatzea, errentan ematea, eskualdatzea, hala nola hipotekatzea edo pignoratzea, Adunako Udalaren berariazko baimenik gabe edota Udalak emandako aginduen kontra.
- d) Urtebetean arau-hauste arinengatik bi bider zigortua izatea, edo bi urtetan hiru aldiz, baldin eta izaera bereko arau-hausteak izan badira.
- e) Zerbitzuko ondasunei kalteak eragitea, nahita edo arduragabekeria barkaezinagatik.

- f) Zerbitzuak bertan behera uztea edo etetea, Adunako Udalak onartutako ezinbesteko arrazoiengatik edota legez egindako lanuzteagatik ez bada behintzat, edota azkeneko kasu horretan gutxieneko zerbitzuak ez ematea.

- g) Iruzurra egitea, zerbitzua ematerakoan bitarteko egokiak edo exijitutako funtsezko elementuak ez erabiliz, edo zerbitzuari atxikitako materialen bat desagertzea; baita kontrol-agirietan programatutako edo Adunako Udalak agindutako ekiporen bat ez edukitzea ere.

- h) Erantzukizun Zibileko Asegurua dagokion epemugan ez ordaintzea.

- i) Adunako Udalak zerbitzuen prestazioan antzemandako gabeziei buruz idatziz egindako ohartarazpenei jaramonik ez egitea, hiru aldiz, sei hileko epean.

25 ZIGORRAK.

SPKLTBaren 252.2 artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituz, aurreko artikuluko bi apartatuetan aipatutako arau-hausteak honela zigortuko dira:

- 1) Arau-hauste arinak: ohartarazpena edo hiru mila (3.000) euro arteko isuna.

- 2) Arau-hauste larriak: hiru mila eta bat (3.001) euro eta hamar mila (10.000) euro arteko isuna eta, bidezko denean, emakidaren aldi baterako bahiketa, hiru hilabete gehienez; edo kontratua deuseztatzea. Halakorik gertatuz gero, Adunako Udalari eragindako kalte-galeren ordaina eman beharko du esleipendunak, eta gainera, behin betiko bermea galduko du.

Diruzko zigorren zenbatekoa Adunako Udaleko Diruzaintzan sartu beharko du esleipendunak, kasuak kasu adierazitako epean.

Diruzko zigorren zenbatekoak eguneratu ahal izango dira, Estatistikako Institutu Nazionalak adierazitako Kontsumoko Prezioen Indizearen urteko indizearen arabera.

27.- ERANTZUKIZUNAK.

Bai Administrazioari eta bai kontratistari lepora dakiekeen erantzukizuna SPKLTBean xedatutakoaren arabera arautuko da.

Kontratatik, nolahi ere, zerbitzuaren funtzionamenduak eragindako galeren kalte-ordaina eman beharko die derrigorrez hirugarrenei, SPKLTBaren 214. artikuluan ezarritako baldintzetan.

Kalteak Administrazioak emandako agindu baten berehalako eta zuzeneko ondorio izan badira, erantzulea Administrazioa izango legeak ezarritako mugen barruan.

28.- ARRISKU ETA ZORIA.

SPKLTBaren 242 eta 246.b) artikuluetan ezarritakoari jarraituz, kontratu hau kontratistaren arrisku eta zorian adostutzat hartuko da.

29.- BAHIKETA.

Esleipendunak arau-hauste larriak egiten baditu, eta horien ondorioz zerbitzuaren prestazio egokia arriskuan jartzen bada, Adunako Udalak zerbitzua bahitutzat deklaratu ahal izango du, Toki Korporazioen Zerbitzu Erregelamenduan eta SPKLTBean ezarritako arauen arabera.

30.- BERRESKURATZEA.

Toki Korporazioen Zerbitzu Erregelamenduaren 127.1.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, Adunako Udalak zerbitzua berreskuratzeko aukera izango du, indarreko legerian aurreikusitako kasuetan eta legeria horretan ezarritako ondorioekin.

31.- KONTRATUA IRAUNGITZEA.

Toki Korporazioen Zerbitzu Erregelamenduaren 136. artikulua ezarritakoari jarraiki, kontratuaren iraungipena deklaratzeko bidezkoa izango da honako kasu hauek:

- a) Bahiketa kendu ondoren, emakidadunak berriro ere bahiketa ekarri duten hutsegiteak edo antzekoak egiten dituzten.
- b) Emakidadunak funtsezko betebeharrak hutsegite larriak egiten dituzten.
- c) Esleipena edo honi lotutako edozein ondasunen titularitatea beste norbaiti laga, eskualdatu edo dohaintzan ematen zaionean, Adunako Udalak aurrez horretarako baimenik eman gabe.
- d) Zerbitzua arduragabekeriak ematean edo Adunako Udalak zerbitzuari buruz emandako jarraibideak ez betetzean.

Iraungipen deklarazioa, bidezkoa izango bada, Toki Korporazioen Zerbitzu Erregelamenduaren 137. artikuluan ezarritako erantzun zertu beharko da.

32.- KONTRATUA INDARGABETZEA

SPKLTBaren 212, 213 eta 223. artikuluetan aipatutakoez gain, kontratua indargabetzeko arrazoiak dira:

- a) Kontratuan berari hasteko adierazitako egunetik hasita sei hilabetetik gorako epean kontratua martxan ez jartzea, Administrazioari lepora dakiokkeen arrazoiengatik.

- b) Administrazioak hala erabakita, kontratuan atzera egitera edo urtebetetik gorako epean etetea.
- c) Kontratuan aldaketak egitea, bat bestearen ondoren badira ere, eta aldaketa horietakoren batek, edo guztiek batera, kontratuaren prezioan aldaketak eragiten badituzte kasuan kasuko aldaketa onartzeko garaian, baldin eta prezioan % 20ko aldaketa ekartzen badute, gorantz zein beherantz, edota kontratua bera funtsean aldatzen badute.
- d) Era berean, agiri honetan arauz ezarritako betekizunak ez betetzeak, edo kontratuko gainerako agirietan jasotako baldintzaren bat kontratistak ez betetzeak kontratua indargabetzeko bidea eman dezake; bereziki:
- 1.- Zerbitzua zazpi (7) egunetik gora abandonatzea, hala nola onartutako tarifak eta prezioak arrazoirik gabe aldatzea.
 - 2.- Lokala kontratuan adierazitako helburuez bestelako erabileretara bideratzea, Adunako Udalaren baimenik gabe.

33.- INSTALAZIOAK UZTEA

Zerbitzua ustiatzeko epea betetzean, edo akordioa arrazoiz indargabetu edo desegitean, halakorik gertatuz gero, hartutako instalazioak Adunako Udalari hutsik eta oztoporik gabe itzuliko dizkio esleipendunak. Hori horrela, esleipendunarenak diren eta zerbitzua betetzeko xedez eraman dituen elementu pertsonal eta material guztiak aterako ditu.

Adunako Udaleko organo eskumendunak, berrikuspena egin aurretik eta proportziozko epean, hartu beharreko neurriak hartuko ditu ondasunen entrega adostutako baldintzetan egin dadin.

Adunako Udalak, epe hori bukatzen den egunaren biharamunean, instalazio guztiak bereganatuko ditu beste inolako izapiderik gabe. Hain zuzen ere, esleipendunak klausula honen bidez, hartu beharreko neurriak hartzeko baimen formala ematen dio Udalari, baldin eta arestian aipatutako epean esleipendunarenak diren elementuak ateratzen ez baditu.

Lehiakide guztiek, lizitazio honetan parte hartze hutsagatik, espresuki eta formalki onartu egiten dute klausula berezi honen edukia.

34.- KALTE-GALERAK

Adunako Udalak, baldintza-agiri honetan eta ezaugarri teknikoen agirian jasotako klausulak errespetatzeko eta zorroztasun osoz betetzeko exijitzeaz gain, Udalaren jabetzako instalazioek jasan ditzaketen kalte-galeren eta, oro har, esleitutako zerbitzuaren funtzionamendu arruntean antzemandako gabezien ordaina emateko exijitu ahal izango dio esleipendunari. Horrelakorik gertatuz gero, jarritako bermearen zenbatekoa erabili dezake lehendabizi.

Baldin eta esleipendunak ez badu betetzen baldintza-agiri honetan eta ezaugarri teknikoen agirian jasotako betekizunen bat, eta horren ondorioz auzitara jotzen bada, epaitegiko eta epaitegiaz kanpoko gastu guztiak esleipendunaren kontura ordainduko dira eta, gainera, bide judizialez exijitu ahal izango zaizkio.

Kontratastaren ez-betetzeak kalte larria eta konponezina eragiten badu zerbitzuan, eta hala ere Administrazioak ez badu erabakitzen kontratua indargabetzea, Administrazioak berak esku hartu ahal izango du nahasmendu hori konpondu arte. Kontratastak, nolana ere, eragindako kalteak eta galerak ordaindu beharko dizkio Administrazioari.

Administrazioak eskumen osoa du baldintza-agiri hau interpretatzeko eta berau betetzeari buruz sor daitezkeen zalantzak erabakitzeko. Era berean, interes publikoak hala agintzen duenean, zerbitzuaren irismena aldatzeko aukera egongo da, administrazioen kontratuei buruz indarrean dagoen legerian ezarritako mugak eta baldintzak errespetatuz, betiere.

Hitzarmen hau interpretatu, aldatu edo indargabetzearen ondorioz sor daitezkeen auzi oro, Kontratazio Organoak erabakiko du, eta honen erabakiek, administrazio-bidea amaituko dute. Erabaki horien aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, Jurisdikzio hori arautzen duen legeak aurreikusitakoari jarraituz, eta bi aldeei legokiekeen beste edozein eskumeni berariaz uko eginda. Arestian aipatutakoa baldintzatu gabe, legez bidezkoa gerta daitezkeen beste edozein baliabide erabili ahal izango da.